Argitaratze data: 2022/01/18

ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA 2020
Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Hautaketa-prozeduraren ebazpenari buruzko informazioa

2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozedurari dagokionez, jonakoa **jakinarazten da**:

- une honetan ebazten ari da lehiaketa-fasea
- 2021eko azaroaren 12an, fase horretan lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda argitaratu zen
- aurkeztutako erreklamazioak berrikusten ari dira, lortutako puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratzeko

Erreklamazio horiek ebazteko, azterketa sakona egin behar da, eta, **kasu batzuetan,** merezimendu jakin bati buruzko dokumentazio osagarria eskatu da.

Erreklamazio guztiak horrelako prozesu batek eskatzen dituen bermeekin ebatzi ondoren:

- lortutako **puntuazioen behin betiko zerrenda** argitaratuko da
- eta hurrengo fasearekin jarraituko da, hau da, **hautatutakoen zerrenda** argitaratuko da

Horrek ez du ekarriko inolako atzerapenik aurreikusitako egutegian, 2022/2023 ikasturtean egingo diren **praktiketan**.